InfoBilbao — TRAVESÍA PIRINEOS DE CIRCO — Interreg POCTEFA — UNIÓN EUROPEA UNION EUROPÉENNE

BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# BILBOKO UDALAK "ZEHARKALDIA–ZIRKUKO PIRINIOAK" PROIEKTUAREN BITARTEKARITZA-LABORATEGIAN PARTE HARTUKO DUTEN ARTISTAK HAUTATU DITU

- **Bitartekaritza-laborategia Bilbon egingo da martxoaren 15etik 19ra.**
- **Hautatutako 20 pertsonek hiriko hiru talderekin egingo dute lan Rekalde Aretoan: Bilboko Korala Elkartearen Gazte Korala; NEVIPEN Ijitoen gutxiengo etnikoa sustatzeko eta gizarte komunean parte hartzeko elkartea; eta ADEMBI - Esklerosi Anizkoitza pairatzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko elkartea.**
- **Zeharkaldia–Zirkuko Pirinioak lankidetza-proiektua Europar Batasunak batera finantzatutako lankidetza-proiektua da.**

*(Bilbon, 2021eko urtarrilaren 28an).-* Bilboko Udalak Bitartekaritza-Laborategian dauden 20 artistak aukeratu ditu. Bilboko Bitartekaritza-Laborategia martxoaren **15etik 19ra bitartean izango da, Pirinioetako mugaz gaindiko eskualdeetan zirku garaikidea sortzea eta zabaltzea sustatzen duen Zeharkaldia – Zirkuko Pirinioak** proiektu europarraren esparruan. Garatzen dituzten ekintzen bidez, **artisten premia larriei erantzun nahi diete, eta esperimentazioa eta beste ekintza-eredu batzuk sustatu nahi dituzte.**

Ekimen horien artean, mugaz gaindiko zortzi bazkide horiek martxorako hirian antolatuko duten **Bitartekaritza-Laborategia** dago, deialdi ireki bidez erabaki da bertan parte hartuko dutena. Deialdira Pirinioetako bi aldeetako 27 proposamen aurkeztu dira, Toulouseko, Haute Garoneko, Gironako, Bartzelonako, Zaragozako edo Bilboko konpainia edo artisten proposamenekin.

Aditu-taldearen arabera, 20 hautatu dira, arte-diziplinen eta lurraldeen aniztasunaz gain, lurraldearekin konektatzeko gaitasuna, kolektiboekin konektatzeko edo beste testuinguru batzuetara egokitzeko proiektuetan aurretik izandako esperientzia eta aurkeztutako proiektuen kalitatea kontuan hartuta.

Aukeratutako artistek Bilboko hiru talderekin lan egingo dute martxoaren 15etik 19ra: **Bilboko Korala Elkartearen Gazte Korala**rekin; **NEVIPEN** Ijitoen gutxiengo etnikoa sustatzeko eta gizarte komunean parte hartzeko elkartearekin; eta **ADEMBI** - Esklerosi Anizkoitza pairatzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko elkartearekin. Lana Rekalde Aretoko erakusketa gunean garatuko da.

**Aipatzekoa da euskal konpainiek zuzendutako bi proiektu daudela, Hortzmuga Teatroa edo Cía La Pez**, adibidez, eta baita parte hartuko duten beste 6 euskal artista ere, hala nola Mikel Pikaza, Saioa Iribarren, Amaia Vicente, Endika Salazar, Aratxo Angulo edo Gloria Péon.

**ZEHARKALDIA – ZIRKUKO PIRINIOAK**

Zeharkaldia – Zirkuko Pirinioak lankidetza-proiektu bat da. Europar Batasunak finantzatzen du % 65ean **FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsaren** bidez eta **Interreg V-A España-Francia-Andorra programaren bidez (POCTEFA 2014-2020)**.

Ekimena zirkuko arteetarako mugaz gaindiko lankidetza ekimenaren barruan kokatzen da eta zortzi bazkidek osatzen dute, Pirinioetako alde bietako entitate publiko eta pribatuak. Bazkideen artean daude unibertsitateak (Tolosako Jean Jaurés), entseatzeko eta sortzeko lekuak eta fabrikak (adibidez, La Grainerie, Central del Circ), hedapenerako espazioak, eta alor publikoko entitateak, adibidez Bilboko Udala, urtero **Bilboko Kalealdia kaleko arteen nazioarteko jaialdia** eta **Zirkualdezirku-jaialdia** antolatzen dituena, besteak beste.

**SARE SOZIALAK**:

- **Bilbao Udala**: FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM
- **Bilbao Kultura**: YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM

**www.bilbaokultura.eus**

# EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO SELECCIONA A LAS Y LOS ARTISTAS QUE PARTICIPARÁN EN EL LABORATORIO DE MEDIACIÓN DEL PROYECTO “TRAVESÍA-PIRINEOS DE CIRCO”

- **El Laboratorio de Mediación se celebrará del 15 al 19 de marzo en Bilbao.**
- **Las 20 personas seleccionadas trabajarán en la Sala Rekalde y con tres colectivos de la ciudad: la Coral Joven de la Sociedad Coral de Bilbao; NEVIPEN, Asociación para la promoción y participación de la minoría étnica gitana en la sociedad común; y ADEMBI, Asociación para mejorar la calidad de vida de las personas con Esclerosis múltiple.**
- **Travesía - Pirineos de circo es un proyecto de cooperación co-financiado por la Unión Europea.**

*(Bilbao, 28 de enero de 2021).-* El Ayuntamiento ha seleccionado a **las y los 20 artistas incluidos en el Laboratorio de Mediación que tendrá lugar en Bilbao del 15 al 19 de marzo, en el marco del proyecto europeo Travesía-Pirineos de Circo,** que promueve la creación y la difusión del circo contemporáneo en las regiones transfronterizas de los Pirineos. A través de las acciones que desarrollan persiguen **dar una respuesta a las necesidades urgentes de las y los artistas y fomentar la experimentación y otros modelos de acción**.

Entre esas iniciativas, se encuentra el **Laboratorio de Mediación** que estos ocho socios transfronterizos organizan para marzo en la Villa y cuya participación se ha decidido por **convocatoria abierta**, a la cual se han presentado **27 propuestas de ambos lados del Pirineo, con propuestas de compañías o artista afincados en Toulouse, Haute Garone, Girona, Barcelona, Zaragoza o Bilbao**.

Según el equipo de expertos se han seleccionado 20 atendiendo no sólo a la diversidad de disciplinas artísticas y de territorios sino valorando la capacidad de conexión con el territorio, la experiencia previa en proyectos de conexión con colectivos o adaptación a otros contextos y la calidad de los proyectos presentados.

Las y los artistas seleccionados trabajarán del **15 al 19 de marzo en la Sala Rekalde y, además, con tres colectivos de Bilbao: la Coral Joven de la Sociedad Coral de Bilbao,** **NEVIPEN**-Asociación para la promoción y participación de la minoría étnica gitana en la sociedad común- **y** **ADEMBI**-Asociación para mejorar la calidad de vida de las personas con Esclerosis múltiple-**.**

**Cabe destacar que hay dos proyectos liderados por compañías vascas, como son Hortzmuga Teatroa o Cía La Pez**, y también otros 6 artistas vascos participantes como Mikel Pikaza, Saioa Iribarren, Amaia Vicente, Endika Salazar, Aratxo Angulo o Gloria Péon.

**TRAVESÍA - PIRINEOS DE CIRCO**

Travesía - Pirineos de circo es un proyecto de cooperación co-financiado por la Unión europea en un 65% por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) a través del Programa Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020).

La iniciativa se enmarca dentro de la iniciativa de colaboración transfronteriza para las artes del circo y está compuesta por ocho socios que son entidades públicas y privadas de ambos lados de los Pirineos. Entre los socios figuran universidades como Jean Jaurés de Toulouse, lugares y fábricas de ensayo y creación como La Grainerie o Central del Circ, así como espacios de difusión y entidades del ámbito público, como es el caso del Ayuntamiento de Bilbao, que anualmente organiza **Bilboko Kalealdia, Festival de Teatro y las Artes de Calle**, y **Zirkualde, festival temático sobre artes circenses**.

**REDES SOCIALES**:

- **Bilbao Udala**: FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM
- **Bilbao Kultura**: YOUTUBE | FACEBOOK | TWITTER | INSTAGRAM

**www.bilbaokultura.eus**